

1. Data eta tokia
 - a. XV. Sorginen Lasterketa irailaren 17an izango da. Atxondoko (Bizkaia) Axpe auzoan hasiko da goizeko 9etan, helmuga ere leku berean izango delarik.
2. Ibilbidea
 - a. 21 km-tako distantzia eta 1750 metroko desnibel positiboa izango du. Lasterketako punturik garaiena Anbotoko tontorra izango da (1331m).
 - b. Eguraldi baldintzak egokiak ez baldin badira eta segurtasunagatik antolakuntzak horrela erabakitzen badu, Anbotoko igo ordeaz Anbotori buelta emango zaio.
3. Parte hartzaileak
 - a. 350 korrikalariren kupoa ezarriko da.
 - b. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta 15 urtetik gorakoek gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.
4. Kategoriak
 - a. Absolutu maila, gizonezko eta emakumezkoetan.
 - b. Beterano maila, gizonezko eta emakumezkoetan (40 urte edo gehiago probaren egunean).
 - c. Atxondoko lehen emakumezko eta gizonezkoa.
5. Izen emateak
 - a. Kirolprobak plataforman (www.kirolprobak.com) burutu ahalko dira izen emateak apirilaren 3tik aurrera, goizeko 10etan zabalduko da horretarako epea.
 - i. 10:00etatik 13:00etara, mendiko lizentzia dutenek eman ahalko dute izena soilik, EMFko Txapelketa delako.
 - ii. 13:00etatik aurrera lizentziadunek eta lizentzia gabeek eman ahalko dute izena.
 - b. 350 korrikalarien kupoa gainditu ondoren izena ematen dutenak itxaron zerrendan sartuko dira. Ondoren, izen emandakoren baten baja ematen baldin bada, itxaron zerrendakoei deituko zaie, izen emate ordenaren arabera.
 - c. Izen ematea burutzeko 22 € ordaindu beharko dituzte federatuek eta 27€ federatu gabeek. Izen emateko azken eguna irailak 2a izango da, gaueko 23:59ak arte.
 - d. Abuztuaren 15etik aurrera, ez da diru itzulketarik egingo. Epe horretatik aurrera, itzulketak egiteko salbuespena dagokion ziurtagiria (laneko baja txostena, medikuaren txostena,...) aurkeztea izango da.
6. Derrigorrezko materiala
 - a. Txanodun zira edo txanorik ez baldin badu zirak, buff bat edo txano bat eraman beharko da aparte.
 - b. Edalontzia edo soft-flasha.
 - c. Mobila.
 - d. Musukoa.
7. Dorsal banaketa eta kontsigna zerbitzua
 - a. Axpeko frontoian egingo da, goizeko 7:30etatik 8:40 arte.
 - b. Federatuek mendiko lizentzia erakutsi beharko dute dortsala jasotzerakoan.
 - c. Frontoian bertan, kontsigna uzteko aukera egongo da.
8. Irteera
 - a. Lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago irteera puntura hurbildu beharko dute korrikalariak eta bolondresak korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala duen ziurtatu dute.
 - b. Irteera eman arte, korrikalariak musukoa jarrita izan beharko dute eta behin lasterketa hasita, kendu ahal izango dute.
9. Denbora muga

- a. Zabalandiko anoa gunean (10 km gutxi gora behera, Anboto igo baino lehen) 2:15'00" baino lehenagoko denboran igaro beharko da. 2:15'00" pasatzen den korrikalaria metan 4:30'00" egon daitekeela dela kalkulatzeko dugu. Korrikalariak denbora muga hori gainditzen badu, antolakuntzako bolondresak kotxez garraiatu ditzake korrikalariak edo bestela ibilbidea jarrai dezake dortsala kenduta eta beti ere atzeko korrikalariei bidea erraztuz.
10. Anoa guneak
 - a. Atxeko baserrian (6 km inguruan).
 - b. Zabalandin (10 km inguruan, Anboto igotzen hasi aurretik).
 - c. Pagazelain (12'5 km inguruan, Anboto jeitsi bezain laster).
 - d. Guenzelain (16 km inguruan, Artola igoten hasi aurretik).
 - e. Helmugan.
 - f. Anoa guneetan ura hartzeko korrikalari bakoitzak bere edalontzi edo shoft-flasha eraman beharko du.
 - g. Anoa guneetan edo bere inguruetan basura poltsak jarriko dira edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak,...) bertara botatzeko. Poltsa horietatik kanpo edozein zabor botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketaz kanpo huts dezake antolakuntzak.
 11. Helmugaratzea
 - a. Helmuga pasatu bezain laster, korrikalariak berriz ere, musukoa jarri beharko dute.
 - b. Helmuga lerroa gainditutakoan korrikalariak ezingo dira bertan geratu pilaketak ekiditeko. Antolakuntzako bolondresen gomendioak jarraituz, helmuga gurutzatutakoan seinalizatuta egongo den bidea jarraituko dute mangeren gune batetik pasatuz.
 - c. Mangeren gune honetan korrikalariak oinetakoak garbitu ahal izango dituzte. Dutzetan sartu aurretik, derrigorrezkoa izango da aurretik oinetakoak mangeretan garbitzea, dutxak garbi mantentzeko.
 12. Dutzak
 - a. Axpeko frontoiaren atzekaldean izango dira dutxak.
 13. Sari banaketa
 - a. 13:30etan emango zaio hasiera sari banaketari (edo azken korrikalaria arinago heltzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren) Axpeko plazan jarriko den eszenatokian.
 - b. Ondorengo diru sariak egongo dira:
 - i. 1. emakume zein gizonezkoarentzat 250€.
 - ii. 2. emakume zein gizonezkoarentzat 175€.
 - iii. 3. emakume zein gizonezkoarentzat 100€.
 - c. Lehen bost gizon eta emakume sailkatuek datorren urterako izen ematea debalde izango dute.
 14. Proba puntuagarria
 - a. Bizkaiko Mendizale Federazioko mendi lasterketen ligarako proba puntuagarria izango da.
 - b. Euskal Mendizale Federazioko Txapelketa izango da, lineako mendi lasterketen modalitatean.
 15. Covid arautegia
 - a. Momentuan dagoen egoeraren araberrako neurriak ezarriko dira eta egoerak horrela eskatzen badu, aurreko puntuetan ezarritako arauak aldatu daitezke.